

Funtsezko jarduerak

Gure ideia burutzeko behar dugun dirua lortzeko Osakidetzarekin elkartuko gara gure produktua aurkeztu eta azaltzeko. Honen ondorioz, akordio bat sinatuko dugu diru laguntzak jasotzeko eta gerora farmazietan kutxa automatikoa ipintzeko.

Behin dirua daukagula aurretik aipatutako Tecnichapa Velatia enpresari gure makinaren nahi dugun diseinua eta funtzionamendua azalduko diogu, hauek makina diseinatu eta fabrikatuko dute ahal denik prezio txikienean, kostuak murrizteko, beti ere kalitatezko produktu seguru bat lortzeko.

Beste alde batetik, Tecnichapak egindako makinak garraiatzeko garraio-enpresa batek eramango ditu farmazietara. Kutxak egongo diren farmaziak Osakidetzak ezarriko digu Osakidetzak EUSFAREkin duen itunarekin baliatuz.

Horrez gain, Sendagailen Kutxa Automatikoa izango duten farmaziek diru kantitate jakin bat ordainduko digute alokairu bat izango balitz bezala, makinaren segurtasuna eta matxura edota arazoei aurre egiteko mantentze lanak ordaintzeko.

Hasieran, 55 makinarekin hasiko gara eta hiri garrantzitsuenetan jarriko ditugu. Gero, hileroko bost kutxa gehiago jarriko ditugu herri guztietara zabaldu arte kutxa automatikoa.

Azkenik, informatikoak egindako webgunean makinei buruzko feedbacka eta arazoak jasoko ditugu. Horrek kontutan izanik, teknikari espezializatuak bidaliko ditugu farmazietara kutxekin gerta daiteken edozein arazo konpontzeko.